


# ...eta kitto!



Aurtengo martxoaren 1.ean onartu zen 1990eko ekitaldiaren aurrekontua. Ia bi milioi t'erdiko presupostu hau orain arte Udaleko istorian zehar izan den kopuru handiena da. Dena den, badaude horren barrenean mugitzen diren zifretan zenbait desberdintasun: batzuk, seguruenik zero gehienekin kontatzen dituztenak, egunkarietako orrialdeetan izaten dute nahi beste publizitate. Zenbaki txikiagoz osaturikoak, bestalde, nahiz eta herritarrengan eragin zuzenagoa izan lerro batzuk bakarrik okupatzen kanpo besterik ez dute lortzen. Azken hauei zuzenduko dizkiegu jarraian egokitzat jo ditugun zenbait argipen, azken finean lehen aipaturiko desoreka korrejitu asmoz.

**E**gunerokotasunean herritarrengan euren funtzioa betetzeko orduan duten eraginean oinarrituz, sei atal aztertuko dizkigu, bakoitza bere ezaugarri berezietan.

#### Kultura

Nahiz eta Udal-aurrekontuetan aparte egon Informazio Bulegoa ere hemen sartu dugu.

Aurrekontua: 117 milioi (totalaren % 4,85a);

#### Banaketa:

- Denetario ekintzak: 62 milioi (arlo honen % 53a); hemen koka ditzakegu irudiarekin erlazionaturiko atalak —zinea, argazkia eta audiobisualak—, argitarapenak, Liburu Azoka, bestelako erakusketak, Amañako Aretoari emandako laguntza eta abar. Partida garrantzitsuena, hala ere, Artee-tako Patronatuarena da, fundazio honi ematen zaion diru kopurua 36 milioira iristen bait da.

- Jaiak: 20 milioi (% 17a); hemendik gehiena Sanjuanetan gastatzen da —11 milioi—. Ihauterietan eta Gabonetan antzeratsu —3 milioi— eta Arrateko jaietan eta Sanandresetan gutxi gorabehera milioia. Auzoko jaietarako 2 milioiko aurrekontua geratzen da.

- Informazio bulegoa: 11 milioi pasa (% 9,70a); ia erdia material teknikoaren erosketetan.

- Musika: 9 milioi (% 7,70); atal hau bakarrik Musika Banda taldeari dagokio. Kontzertuak, esate baterako, sei milioi t'erdiko presupostuekin, lehenengo puntuan dute euren toki.

- Gazteek: 8 milioi (% 6,8a); aurten destinatu zaizkie lehenbiziko aldiz. Sariak eta bekak 300.000 pezetara igotzen dute.

- Liburutegia: ia 7 milioi (% 5,80a); honen barnean kokatzen dira Kultura Aretoa eta Artxiboa.

Azpimarratzekoa da Gipuzkoako Aldundiak bidalitako laguntza, 22 milioikoa kultur ekintza bultzatzera zuzendurikoa.

#### Kirola

Aurrekontua: 64 milioi (totalaren % 2,65);

#### Banaketa:

- Polikiroldegiari zuzenduriko transferentziak: 46 milioi (% 72a); hau da atal inportateena, azkeneko urteetan gorantz jo duena. Ez da ahaztu behar fundazioaren aurrekontua ia ehun milioikoa dela —52 milioi soldatak eta 44 mantenimendua—. Azken hilabete hauetan bizi izan dugun egoera gaineratzen badiogu, lehorreak igerilekuak ixtera behartu bait du maiatza arte, sarreren taulan hiru milioiko galera espero da. Honez gainera, plantilako ia % 25ak enplegu erregulazioa jasan izan behar du.

- Beste erakundeei zuzendurikoak: 10 milioi (% 15,6);

- Funtzionamendurako gastu bereziak: 8 milioi (% 12, 5a).

#### Ingurugiroa

Parke eta lorategiei zuzenduriko laguntzak, Udal-aurrekontuetan arlo honetatik kanpo badaude ere, hemen sartuko ditugu.

Aurrekontua: 20 milioi (totalaren % 0,85a);

- Ingurugiroko zenbait atal: ia 17 milioi (% 82,5a); hemengo partida garrantzitsuenak ebaluatzerakoan kontutan izan behar da sail honek eskatutakoa —40 milioiko aurrekontu

### Aurrekontuak

Kultura .....	117.000.000
Kirola .....	64.000.000
Ingurugiroa .....	20.000.000
Ongizate soziala .....	139.000.000
Hezkuntza .....	286.000.000
Euskera .....	37.000.000
Guztira .....	663.000.000

batekin— eta azkenean onartuaren arteko aldea, gauza batzu kubritu ezin geratu direlarik. Jardineruaren lana da lehentasuna duen atala. Beste puntu aipagarri batzu hauek lirateke: Zuhaitz Eguna, zuhaitzen katalogoa, kutsadura e.a.

- Parke eta lorategiak: 3 milioi (% 14,60a); diru hau materiala erosteko da. Badago beste partida bat, 10 milioikoa, berdeguneak errekuiperatzeko erabiliko dena.

- Desratizazioa eta desinfekzioa: 600 mila pezeta (% 3a); arratoiak akabatzeke egiten diren saioetarako.

#### Ongizate soziala

Kontsumo Ordezkaritza ere arlo honen barnean joango da. Aurrekontua: 139 milioi (totalaren % 5,75a);

#### Banaketa:

- Ongizate saila izendatua: 96 milioi (% 69a); hemengo kopuru handiena heuren kabuz ezin dutenei eta zaharrei zuzenduriko laguntza ematen dute emakumeen fundazioari eskeinitako transferentziarena da: ia 24 milioikoa. beste atal batzu huexek dira: Diputazioak emandako pobrezia-aren aurkako laguntzak —19 milioi—, 3. Adinerako pisuaren zerbitzua, Isasiko obrak, D.Y.A. eta Gurutze Gorria, alkilerak eta abar luze bat.

- Materno-Infantil zentrua: 17 milioi (% 12,2a); Eusko Jaurlaritzak 12 milioiko laguntza eskeintzen du.

- Sokorru-etxea: 9 milioi (% 6,65a);

- Kontsumo Ordezkaritza: 5 milioi t'erdiko (% 4a); kontsumo bulegoa barruan delarik.

- Emakumezkoaren Saila: ia 5 milioi (% 3,45a); atal honetan aipagarriena emakumezkoak jasotzeko eraiki behar den pisua da. Horretarako Eusko Jaurlaritzak 2 milioiko laguntza eskeintzen du, presupostutako inbertsio plangintzan 3 milioi t'erdiko zifra agertzen delarik.

- Osasunerako beste ekintza batzu: ia 3 milioi (% 2a); droga arazoaren inguruan dauden familiei emandako laguntzak, bai bidaietarako, bai beste beharretarako. Diru hori, gainera, ez da izaten nahikoa eta beste partida batzuetik hartu

beharra izaten da.

- Jubilatuen Etxeak: ia 2 milioi (% 1,35a).

- Osasun Mentalaren Zentrua: milioi t'erdiko (% 1a).

#### Hezkuntza

Aurrekontua: 286 milioi (totalaren % 12a);

#### Banaketa:

- Lantegi Eskola: 142 milioi (% 50a); INEMen bidez Estaduko administrazioak 120 milioiko laguntza eskeintzen du.

- Eskolak: 91 milioi (% 31,80a); partida honetan 9 milioi mantenimendurako dira. Ikastolari zuzenduriko transferentziak 13 milioira iristen dira. Badaude ere bestelako subentzioak, E.P.A.ri dagozkionak, adibidez.

- Kopensatoria Eskola: 28 milioi (% 9,80a); hemengo laguntza Eusko Jaurlaritzatik dator.

- Irakaskuntza Orokorrak: 18 milioi (% 6,3a); hemen sartzen dira Polikiroldegiarako garraio-zerbitzuak —4 milioi t'erdiko—, Eskolako Kontseilua, ur mineralaren omidura e.a.

- IMI Zentrua: 6 milioi t'erdiko (% 2,30a).

Inbertsioari begira, 10 milioiko partida bat azaltzen da Udalaren aurrekontuetan.

#### Euskera

Aurrekontua: 37 milioi t'erdiko (totalaren 1,55a);

#### Banaketa:

- Berez Euskera deitzen den atala: 25 milioi t'erdiko (% 68a).

Euskera Zerbitzuaren aurrekontua ia 16 milioira iristen da. Dena den, kosto erreala 12 milioitan geratzen da, diru-sarrerak ia 4 milioiko kopurura heltzen bait dira. Honen barruan dauden datu aipagarrienak hauek dira: AEKri subentzioa —3 milioi pasa—, "Eta kitto" —2 milioi—, Afari-kanan —2 milioi t'erdiko—, Euskal Jaia —200.000—, marrazki bizidunak, Gaztetan, kanpainak, subentzioak...

- Euskaltegia: 12 milioi (% 32a); diru sarreretan partida nagusia Haberen laguntzak suposatzen du —30 milioi—, udalarena 12 milioikoa delarik. Horrez gainera, matrikulak eta abar 5 milioira heltzen dira eta zerbitzuen funtzionamenduari dagokionez 7 milioi pasatxo da gastatzen dena.

### ...eta gainera...

3. Orrialdea:

• Antzerki taldearen emaitzak.

4. Orrialdea:

• Mendi bizikleta.

5. Orrialdea:

• Firin Faran.

6. Orrialdea:

Elkarrizketa: Laura Bartra.

7. Orrialdea:

• Elkarrizketa: Pakita eta Maritxu.

8. Orrialdea:

• Ezkontzak.

## ARDAU — DENDA

BERASALUZE ESTANKOA

TABAKOA, ARDAU EDERRAK ETA KABA APARTAK  
SAN JUANETARAKO/ OPARI PAREGABEAK

San Andres Pasalekua 5.

tfnoa: 11 01 40

EIBAR

## calcul mecano

Zure Bulegoa Jazteko Egokienak Gara

Toribio Etxeberria  
Tfnoa: 70 07 50 / 70 11 95

EIBAR (Gipuzkoa)

## ARRATEKO IGOERA / EIBARKO BIZIKLETA

### Txirrindularitzaren aldeko zaletasunaren indarra

#### Meteorologia kurtsiloa aurrera

Euskara Zerbitzuak oraingoan Apirilaren 23an hasi eta Ekainaren erdikaldera bukatuko den meteorologia kurtsilo bat antolatu du, kurtsilo oso bitxia, inoiz orainarte eman gabekoa, euskeraz behintzat; honen arduraduna Peio Zabala, amezketarra, denetarik egiten duena: Euzkadi Irratian musika klasikoko programa bat eraman, meteorologoa, soinu-jolea,... eta oraingoan maixua. Euskeraz ematea ez da betere erraza hitz tekniko asko bait daude. Bera UZEI-n meteorologiako hiztegi bat lantzen saiatu da, bere ustez "ez da lan erraza izan, gauza hauetan ezin zara oso tekniko izan ezta baseritarren hiztegiak bakarrik mugatu."

"Meteorologiak azkenengo urteotan izugarriko aurrerakuntzak izan ditu: sateliteak, aparatu modernoekin egindako estudioak... Hala ere meteorologoen epe txiki baterako prebisioa besterik ez dute egiten, bost egunetara zer egingo duen jakin dezakegu baina gehiagorik ez; hori da hain zuzen nik hemen erakutsi nahi dudana, fenomenoaren zergatia aztertu eta honek ekar dezakeen ondorioak aurreikusten jakin, bista pixka batekin jokatzeko besterik ez da behar." dio Pellok.



## IRAKURLEAREN TXOKOA

### Bonboneraren apologiarik ez mesedez

Arriuta geratu naiz azken "Kitto"n egin duzuen Bonboneraren apologia-kin, kontutan eukita mobida horren ondorioak nefastoak izan direla, neurri handi batean, tabernariak kenduta inongo aberastasunik ez bait dio ekarri herriari ez ekonomikorik ez bestelakorik; txabakanokeriak ugari!

Beraz, mesedez, hurrengoan horrelako gaiak lantzerakoan ispiritu kritikoa eta iritzien kontraste handiagoa eskatzen dizuet "Kitto"ko lagunoi

EIBARTAR KRITIKO BAT

### Zenbat kale-izen ezagutzen dugu?

Kaixo...eta kitto-zale:

Gu AEK-ko 2. urratseko ikasleak gara, gure herriko zenbait pertsonaia ospetsuei buruz inkesta bat egin dugu eta hauek dira ondorio garrantzitsuenak:

- Denok dakigu non dagoen Fermin Calbeton kalea baina bakarrik % 11k daki Donostian jaio zela, Labanan Katedratiko eta Diputatu egin zutela eta Seguritate Soziala sortu zuela.
- Wescelao Orbea kalea % 44k badaki non dagoen baina % 18k soilik daki Diputazioko Letratu eta Bizikleta lantegiaren sortzailea izan zela.
- Indalecio Ojanguren kalea ordea % 77k ez daki non dagoen baina % 65k badaki argazkilaria eta mendizale bikaina izan zela.
- Azkenik Bittor Sarasketa kalea jende gehienak ezagutzen du % 81k eta % 59k badaki eskopetaren munduko erregea izatera heldu zela, entzun dugu ere Alfonso XIII arekin heizara joaten zela.

Ikuste hau zuek Eibar hobeto ezagutzeko egin dugu, lortzea espero dugu.

### Babeleko dorreari aurre egiten, itzulpen-ikastaroa

Lankide Aurrezkiak Untzagan duen lokal batean dozentxo bat pertsona biltzen dira Itzulpengintza arloan gure herrian antolatu den lehenbiziko ikastaroan. Asteazkenero izaten den gure hizkuntza eta besteen arteko antzekotasun eta desberdintasunak aztertzeko hiru orduko paradan, Atxagaren poesia landu eta "tonua" zer den jakiteaz gain aukera ederra izaten da batek dituen akatsak zuzentzeko. Udaletxean itzultzaile lanetan ari den Begoña Azpiri, kurtsilo honen arduradunaren esanetan, konturatu gabe pasatzen zaizkio orduak. Mementu honetan bigarren fase batean aurkitzen dira, gramatikari zuzenduriko atala ikusi ondoren, testu erabilerrari dagokiona. Ea San Juanak aurretik amaituko den ikastaro honen barruan dagoen jendeak hiztegia erabiltzeko bizioari esanahiak eskatzen duen zehaztasuna atxekitzen dion!



## SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia?. Beno hori hala bada eta AYERBEk oparitutako duen liburua irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez?

EIBARKO UDALA  
EUSKARA ZERBITZUA  
"... eta Kitto Sariketa".

16. Aleko sariketaren erantzuna: "Errekatxu/Sansaburu ingurua da" zen. SARITUA: Pilar Aranzeta Korta, Julian Etxeberria kalean bizi dena. Hurrengo Sariketarako Ekainaren 15erako bidali behar dira erantzunak. SORTE ON!!!


### AYERBE LIBURUDENDA LIBURU SALDUENAK

#### EUSKARAZ

TXAKUR ZAUNKAK ATEAN  
J.M. Elexpuru  
SOKRATIKOAK ERE BADUTE AMA  
Andoni Egaña  
BIHOTZA KOLIKOAN.  
Martin Ugalde  
OBABAKOAK/B. Atxaga

#### ERDARAZ

"Galindez" / V-Montalban  
"Cuentos de Eva Luna" / I. Allende  
"Montenegro" / V-Figueroa  
"El arbol" / "De la oruga a la mariposa"  
Biblioteca visual Altea



### Txokoak dotoretzen

Zenbat denbora iraungo ote du autobus-geltokian prestatu den loretoki edo jardinak?. Txukun jarri eta aste bete ingurura txakurrak sartzeko debekua adierazten zuen txartela hautsia zegoen. Gure herrian "rara avis" diren altxorrak ongi zaindu beharra daukagu geure bistaren gozamenerako izan daitezten.



eusta kitto



HARTZAREN  
KOBATIK

## Eguneroko ilusioa

Iritsi da berriro ere. Urtero udaberriarekin ailegaten den izurritea heldu zaigu. Plaga horrek gure herritarren begientzat ondorio larria dakar, antza, begiek aparailu ilun eta zatar batzuekin estaltzen bait dituzte.

Inork ez du ezagutzen milaka pertsonari bere ikuskera eta bista oztopatzen dion mikrobiotxo. Gure kaleak betaurreko ilunez betetzen diren artean, zientzizonek bakuna baten bila gogor jarduten dira. Gaur arte, alferrik. Oraindik ez dira ados jarri gaitzaren izena asmatzeko; batzuk "Stevie Wonderen Sindromea" proposatzen duten artean, beste batzuk "Rompitetxitis"-en alde agertzen dira. Beraz, zientziak ez du aurrerapausu haundirik eman gaitz hau ezabatzen.

Dena den, denak ez dira eritzi berdinekoak. Beti bezala, zenbat buru hainbat aburu. Zenbait soziologoren ustez, medikuntzaren teoriak baztertu, fenomeno bitxi honen jatorria beste arrazoi batean datza: komplot bat da.

Zein da, soziologo agurgarri hauen ustez, komplot hau bultzatzen duena?. ONCE itsuelkartea. Kupoisaltzaileen asmoa, soziologo teoriari jarraituz, gizarte osoa bere erara "ikustea" da, bere partaideen gizar-tearekiko integrazioa hobetuz. Unamunok Europari buruz esandakoari jarraituz, "Itsuok gizartean integraztea baino, beste guztiak itsutuko ditugu" hartu dute konsignatza. Ondorioak argi ikusten ditugu, kaleak betaurreko ilunez josita, anteoju beltzak nonahi.

Agian, betaurreko ilunak amuleto bezala erabiltzen dira, "eguneroko ilusioa", hots, ONCEko kupoaren saria, eskuratzeko. Miloi batzuk patrikaratu ezker, ezer ez da beltz ikusten, ezta betaurreko ilunekin ere.



# Antzerki tailerraren emaitzak hiru urte lanean eman ondoren, laister plazaratuko.

Eibarko Udaleko zinegotzi dena, Ramón Rodríguez esan digunez antzerki tailarrean eman den arazorik funtsezkoena "Geroak antzerki tailerra baztertu egin duela da". Bestealde jakin dugu Geroak Pedro Luque izendatu duela antzerki tailerra gauzatzeko.

Gai honi buruz hitz egiteko Ramón Rodríguez eta gain antzerki tailarreko partaide batekin eta Eibarren antzerkia bultzatu egin duen pertsona beharrezko batekin, Juan Ortega, hitz egin dugu.

Dagoeneko hiru urte pasa dira antzerki tailer proiektua gauzaten hasi zela. Momentu hartan Geroa antzerki taldeak egin zuen proposamena antzerki tailer bat sortzeko eta proposamen harrera ona izan arren udaletxearen aldetik, Juan Ortega galdetu zioten bere eritzia eta orduan esan bezelaxe eta orain mantentzen duen bezela berak zera esan zioen: "Antzerkiaren irakaskuntza ministraritzari dagokio eta ez udalei, udaletxeek beste zeregin batzuk bait dituzte eta uler dezaket udaletxeak antzerkiarekiko interesa biztea baina inoiz eskola edo tailer bezela, sarbide edo hasiera kurtso bezela baino".

Juan Ortega ez die ezer kentzen, ez Geroari, ez Pedro Luqueri are gehiago, profesional oso ontzat hartzen ditu, baina berak azpimarratzen du udaletxe batek ezin duela eskeini irakaskuntza egoki bat antzerki mailan, horrek diru asko beharko bait luke. Hasieran antzerki tailarrean zegoen jende kopurua nahiko zabala izan arren gehienetan gertatzen den bezela jendea jeisten joan da orain dauden 9 ki-deen taldea gelditu arte. Taldeko partaide batekin hitz egin ondoren, Asun Gandiaga, berak esaten digu taldekoek dituzten berri bakarrak antzerki tailerraren amaiera ekinerako espero dela eta amaiera hori bat etorriko dela beraiek prestatu duten Chejov-en "La Boda" obraren aurkezpenarekin. Alde batetik 9 pertsona hauen eta Pedro Luqueren lana eta ilusioa dago eta beste alde batetik Udalaren ezetza proiektuarekin aurrera jarraitzeko. Ramón Rodríguezekin hitz egiten dugun bitartean jakin nahi dugu ea nolakoa den Pedro Luqueren lana irakasle eta zuzendari bezela eta Rodríguez jaunak esaten digu udaletxeak ez duela inolako erlaziorik

**Ramon Rodriguez:** "Geroak antzerki tailerra baztertu egin du".

**Juan Ortega:** "Antzerkiaren irakaskuntza ministeritzari dagokio eta ez Udalei".

**Asun Gandiaga:** "Oraingoz Chejoven "La Boda" aurkeztuko dugu eta etorkizuna gero ikusiko dugu".

Pedro Luquerekin Geroa erabiltzen dutelarik tartekari bezela. Rodríguez jaunak baikor begiratzen dio etorkizunari baina bere itxaropena haurrei zuzenduriko antzerki kurtsoetan dago orain arteko planteamenduak era bat aldatuz.

Alde batetik Geroari leporatzen zaio gehien bat antzerki tailerraren funtzionamendu txarra, Rodríguez jaunak dio hau era bat ulergarria dela garai hori funtsezkoa izan bait zen Geroaren garapen eta hazkundearentzat, fama heltzen ari

zitzaien baina beraiek ordezko bat jarri zuten, Pedro luque, beraz non dago arazoa?.

Baliteke guzti honen oinarria Juan Ortega emandako eritzi kritikoa egotea: "Udaletxearen zer egina ez da irakaskuntza eta nahiago dut ezer ez egotea, lor ezinak diren itxaropenak sortarazten dituen antzerki tailer txar bat baino".

Antzerki tailerraren emaitza laister batean ikusteko aukera izango dugu eta izan dute gutxienez beraien aukera antzerki mundura hurbiltzeko, badirudi momentuz udaletxean aukera hori umeei bakarrik emango diela. Inork ez dauka argi zein izan den antzerki tailerren errealtatea eta lehen esan bezela emaitzak epe laburrean ikusiko dira baina argi gelditu daitekeena da, 9 pertsonarengan antzerkiarekiko ikuspuntua eta erlazioa aldatu egin dela eta gutxienez antzerkia beste aurpegi batekin ikusiko dute. Asun Gandiagak esan zigunez aurrera jarraitzeko posibilitatea aztertzen daude, oraingoz "La Boda" eta geroa etorkizunak emango die.



Alfredo ELORZA  
ORTOPEDIA

TRATAMENDU EGOKIAK

ZEZENBIDE, 6 (EIBAR) Tfnoa: 11 00 70

FIAT

EIBAR

HOGEL, S.A.

BITOR SARASKETA, 7

12 10 00

12 10 19



Laurak, Euskadi ordezkatzan du Estatuko Gimnasia Erritmikoaren Txapelketan.

## Laura Bartra: bizitza tapiz gainean

Baliteke hau izatea bere amets gozoena edo horrela iruditu zitzaidan behintzat. Elkarrizketa egiteko orduan han zebilen, Polikiroldegiko pistan eta, amaitu bezain pronto, berriro bueltatu zen, gogatsu. Gimnasia erritmikoaren taldeko beste hiru neska konpainiaz, ekin genion solasaldiari:

**Galdera: Zenbat urte daramazu mundu honen barruan?**


Erantzuna: Ariazneren amak animatu ninduen; auzokoa da. Zazpi edo zortzi urte nituen orduan eta, kontutan hartzen badugu hamabost ditudala ba, hori beste zazpi edo zortzi egin ditut gustokoena dudana egiten.

**—G.: Praktikatzan hasteko zein deritsozu adin egokiena? Eta emaitza hoberenak lortzeko?**

—E.: Gutxi gorabehera jendea sei edo zazpi urterekin hasten da, batzuk bederatzirekin. Gero, Natalia estatuko Txapelketarako sailkatu den beste eibartarra hamabikin hasi zen, baina hau salbuespena da. Ez da ahaztu behar batzu hamar urterekin egoten direla mementu onenean, beste batzu hamaseikin eta horren zergatia askotan lehenago edo beranduago hastean datza.

**—G.: Zer aparatu erabiltzen da gimnasia erritmikoan?**

—E.: Bost dira: pelota, soga, aroa, mazak eta zinta. Txikitan ez dira guztiak erabiltzen. Gainera, beste gauza batzuri ematen zaie garrantzia, flexibilitateari batez ere. Asko lantzen dena jauziaren potentzia da. Gorputzaren aldetik, beso eta hankak luzeak izatea abantaila izugarria da.



**—G.: Beldurrik bai?**

—E.: Bai, baina hori segidan joaten zaizu. Noizean behin eroriko zara, min hartuko duzu baina entrenatzaileari jarraituz gero, aurrera egiten duzu. Jaurtiketak, konfidantza zureganatzen duzun heinean, gero eta handiagoak egitera ausartzen zara.

**—G.: Egunean zenbat ordu ematen duzu prestaketetan?**

—E.: Ahal dudan guztiak. Gure

ordutegia bost'erdietatik zazpirak arte baldin bada ere, bostak baino lehen etorri eta berandu arte geratzen gara. Asteburuetan, goizeko hamarretatik arratsaldeko zortzirak arte egoten gara, bazkaria hemen barruan egiten dugularik. Baina guk horrela nahi dugulako, eh?

**—G.: Ez da izango moda batetik, ezta?**

—E.: Moda? Bai zera. Hau ez da

moda, kirola baizik. Hemen beste aktibitate ezberdin batzu daude eta gurean partehartzea hamazortzi lagunekoa da. Aldiz, jazz, aerobic eta gimnasia eskolakoak ehun baino gehiago dira. Gimnasia erritmikoan gertatu dena da maila igon dela. Ez da modaren kontua.

**—G.: Zaila al da musika eta gimnasia arteko behar den sinkronia hori lortzea?**

—E.: Bueno, denbora behar da. Gehiago esango nizuke, ipintzen badizute gustatzen ez zaizun musika bat, froga ongi burutzea ezinezkoa bihurtzen zaizu. Zure buruak ezin du edo ez du nahi erritmo hori jarraitu.

**—G.: Beti ere, zuen lana epaitzerakoan, Juradoen eritzia eztabai-dagarria gerta daiteke. Edo ez?**

—E.: Bai, bai, askotan horrela da. Badaude arau batzu eta konposizioa eta ejekuzioa dira ebaluatu behar diren puntu bakarrak, baina... Gipuzkoan bertan ere izan dira esamesak. Eta hemen txaloak ez dira kontatzen, partehartzaileen guraso eta anaiarrebak ikusle bakarrak bait dira.

**—G.: Ba al duzu gustoko gimnastarik?**

—E.: Hemen ezagunena Ana Bautista da, Estatu mailan; baina ni gehien betetzen nautenak sobietarrak dira. Bideoetan sarri ikusitakoak eta ez naiz aspertzen... Kexa modura, telebista oso gutxi saiatzen dela esango nuke.

**—G.: Zergatik uste duzu neskek bakarrik egiten duzuela kirol hau?**

—E.: Ez dakit... Beti izan da horrela, ezta? Ba, neskaen kirola delako... Ez dakit zer erantzun.

**—G.: Amaitzeko, datorren txapeladeta noiz jokatu behar duzu?**

—E.: Igande eta astelehenean izango da, Logroñon. Gainera, astelehenean azterketa daukat eta ez didate fetxarrik aldatu nahi. Ikus dezazun ez dudala inongo erraztasunik.

### Kirol honi laguntzeko Klub Deportibok komisio berria sortu

Hemendik gutxira aldaketa bat izango da gure herriko gimnasia erritmikoaren inguruan. Honek aurrerapausu garrantzitsua suposatuko du kirol honen fintkatze prozesuan. Orain arte Ipurua Klub mosura (1988. urtetik hona), funtzionatu duen taldeak, Klub Deportiboak eskeintzen dion laguntza jarraitzeko bultzada bat hartuko du. Nahiz eta funtzionamenduari begira aldakuntzarik ez den egongo, antolakuntza eta administral egituraketan hainbat hobekuntza jasoko dira; batik bat beste erakundeekin harreman bideak errazteko orduan. Horrela, eragin gutxiko edo defizitarioa den beste ekintza batek behar duen babesa izango du falta diren biderapen edo tramite federatiboak betetzen direnean.

### ZER IKUSI HURA IKASI

#### FITXA TEKNIKOA:

Kamera: Konika FS1  
Objektiboa: 28mm.  
Pelikula: Kodak TRI-x 400 ASA  
Errebelatzaile negatiboa: RODINAL 1+50 14'  
Papera: AGFA Record Rapid, 2.  
Errebelatzaile positiboa: Neutol WA




#### BIZPAHIRU HITZ:

Argazki hau Goiuriako baserri batetan, arratsaldeko betan aterata dago. Albotik argi egokia zegoen argazkian pinporrak ateratzeko. Txakur bat eta baserri bat ere bazeuden baina gaur geraneok ikusiko dituzue. Ereku-sakonera lortzeko diafragma itxi-itxia erabili buen (16koa) eta objetibo angeluar handia.

BIXENTE  
EIZAGAETXEBERRIA

### ...ETA KITTO!-k GOMENDATURIK

#### Itxuraldaketa



Nobela sinboliko honen egilea Franz Kafka da. Kafka 1983-an Pragan jaio zen eta 1924-an Vienan hil. Idazle hau familia burges batetan jaio zen. Bere obretan, bere biografiaren ezaguarriak nabaritu ahal dira. Beste batzuen artean, "El Proceso", "El Castillo", eta "América" liburuak idatzi ditu. Kafkak errealtatean arraro diren gauzak arrunt bilakatzen ditu bere obretan. Behar bada, gazte bakarti eta ahula izatea izan liteke horren arrazoia. Bera, bai gizartean, eta bai bere familian, arotza sentitzen zen. Berak zionez: "ez naiz inoiz heldua izango".

Bere nobeletako pertsonaia gehienek ez dute izenik. Eta bere izaera onirikoa da, expresionismoari lotua. "Itxuraldaketa-n ere halaxe gertatzen da. Nobela hau da beraren ezagunetarikoa. Gaur egun euskaratua ere badugularik, Xabier Kintanari esker, eta Lur editorialak argitaraturik.

Narrazioa itxuraz erreza da. Bere protagonista Gregorio Samsa da, beronen inguruan gauzatzen da nobela osoa. Narrazioak Gregorio insektu batean eraldatzean sortzen diren ondorioak kontatzen dizkigu. Bere bizitzan izan dituen maitasun frustazioak, lanbide aspergarriak eta erangingarri gabekoak, eta bere aitarekiko hauzian isladatzen ditu narrazioak.

Azken finean, Kafkaren bizitza eta ingurune soziala erreplejatzen dira obra honetan. Arrunt ez dena, arrunt bilakatuz. Eta sinbolismoaren bitartez gizarte hori kritikatu.

### Corre Pollos-ek beste mundu batekin amesten zuen

Hilabete honetan aurkezten diezuegun diska hau, agian ez zai-zue oso ezaguna egingo. Honen arrazoia, Euskal Herriari argitaratu gabe egotearena da. CORRE POLLOS daukate izena eta andaluziarrak dira, Granadakoak hain zuzen.

Argitaratu duten lan honek SONABA CON OTRO MUNDO darama izenburutzat eta bertan parte hartu duten lagunak, Alexis (bateria eta kora), Ivan (bajua eta kora), Carlos (ahotsa) eta Michel (gitarra eta kora) dira. Grabaketak "Estudio de grabación Fernando J. Romero" estudioan burutuak daude, tekniko-lanak Romero honek egin dituelarik eta produkzioa talde berberak landuz.

Laukote honen musikari buruz hitzegiterakoan, esan beharko da, era ezberdinetako influentziak dituztela, gehienbat "Punk" erakoak, baina "Ska" martxoso batekin na-

hasturik. Euskal Herriari orain arte egon diren talde batzuk gogora arazten dizkigute, Eskorbuto etabar bezelakoak.

Idazten dituzten letrik ez daukate asmo konkreturik: gizarte honen aurkako hitzak dituzte, adibidez diskari izenburua ematen dion abestia, "SONABA CON OTRO MUNDO" edo baita beste era askotakoak, adibidez "LA CAMA" oheari eta larru jotzeari buruzkoa edo beste edozein gai "EL ORGULLO A LA BASURA" bezalakoak.

Esan bezala, hamairu abestiz osatutako Lp hau, oraindik ez da hemen argitaratua izan eta baliteke epe laburrean gure dendetan salgai egotea. Beraz, aipaturiko musika ategin duzuenontzat Granadatik datorkizue talde berri hau bere toke bereziarekin.



# Maritxu eta Pakita

## Hogei urte kulturian alde lanian

Eibarren daonik librerixarik zaharrenetakuan oiñ dala bost urte arte ibilli zian Maritxu ta Pakita, ezaunauak Eibarren-Ayerbe librerixakuak-moduan. Eibarko librerixa honetan zelako aukeria eta zelako funtzionamendua egon dan azkenengo 20 urte inguruan kontatuko deskue Maritxu ta Pakitak. Izan be Eibarrek euki daben liburu zabaltzaille konpletuenetakua dogulako.

### Zenbat urte dia hasi ziñatela?

"20 urte inguru izango dia gu hasi giñanetik. Ta zelan hasi? ba...len paraguexia geneukan ta...20 urtian euki ta gero kentzia pentsau genduan paraguexia ta librerixia ipini".

### Librerixiak diru asko emoten dau?

"Ez, ez, ez... librerixiak eztau diru askorik emoten. Eztao iñor be librerixiakin aberastu danik, librerixiakin ezin leike aberastu".

### Liburuekin hasi ziñatenian zelan moldau ziñaten?

"Generalian nobedadiak eskatzen genduzen eta nobedadiak bialtze eskuezan. Gero bueltatzeko be deretxua eukitzen da, hori bai!! Segun ze kondiziotan hartzen dan ta zerian bueltau eiñ leike. Oiñ eh... ekartzen daben momentuan pagau eiñ bihar. Ta gero, satzen ezta, bueltau ta hurruenakin kendu. O sea:maularik ezta. Erropetan da maularik geratzen dia: Librerixan be gelditzen da, bistia euki biozu pixkat... zer erosi bihar dozun jakittekota... sasoiz bueltau ta... zeregiña daka!! Kontuz ibilli bihar da, ze erosi zeinkez liburu batzuk sekula be eztozuzenak salduko!!"

### Eibarren irakurtzeko oitturarik badao edo zer?

"Bai!! Len baiño gehixao, gu hasi giñanian baiño gehixao!! Frankismotik hona eztaikit ba ze... guk bost urte izango dia laga gendua ta... oiñ be egoten gara baiña noizian behin bakarririk. Holan izanda kontaktua galtzen da. Jentian irakurtzeko oitturia haunditu egiñ dala pentsatzen dou guk baiña...bost urte badia dedia laga gendua ta galditua dakau kontaktua".

### Eibarren pentsatzen dozue zerikusia dakala holako denda bat egotia? Kulturalen edo...zer pentsatzen dozue?

"-Baietz pentsatzen dot nik-diñosku Maritxuk. Gu alegindu gara, gu beti alegindu gara horretan. Ta hogei ur-



Maritxu ta Pakita etxeko salan irrifartsu entrebistia amaitsu ta gero.

Idoia Irazola

tian nik pentsatzen dot asko eiñ doula. -Ze, jakina!! -diño Maritxuk, hasten zara gauza batekin librerixiaz kanpo eta hasten zara beste zer batzuk ipintzen, ezta? Ta eukitzen genduzen periodiko estranjeruak be: batez be inglesak, frantsesak eta italianuak be eukitzen gendua-

kiala bialdu ze...paketia eruan da paketia ekarri heurandako be neket-sua zan, ta batez be alperriko biharra!! Ta heurek laga etsen azkenian ekartziari.

Gero euskerazkoa be asko hasi giñan saltzen, orduan indar haundi-

me sin despedirles a ustedes- gu geu berakin aztuta ta berak geu ezautu!!

### Ta jentiaquin tratuan eta, zelan portatzen zan jentia?

"Ondo, ondo. Ta Unibersidade Laboralera etortzen dian mutillak ta...zelako errespetuakin ta...zelako mutillak haretxek be!!

Eztakau iñungo kejarik, danekin ondo konpondu gara. Oiñ eh... orduan danak-de Usted-eitten zeben berba ta oiñ ultimamente gaztiak danak-tu-eitten deskue

### Librerixan danetariko liburuak zekazuezan edo zelakuak?

"Librerixia baten ezin leike eukin dana, eztao munduan librerixarik dana dakanik !!

Eibar dan herrixandako gure librerixan beti egon da liburu asko. Baina ipini izan dabe periodikuetan esaten eh...: liburu erosi bihar bada Eibar-tik kanpora urten bihar dala, ta hori ezta egixa !!

Guk nobedadia dana eukitzen dou, ta ezpadao eitxen da alegiña topatzen. Benetan, hori, libururik eztaola Eibarren esatia, ez jaku gustatu ze... Eibar baten jentiaquin eztaola kanpora juan biharrik."

- Eztao iñor be librerixiakin aberastu danik
- Jentian irakurtzeko oitturia haunditu eiñ dala pentsatzen dou guk
- Eztakau iñungo kejarik, danekin ondo konpondu gara.
- Libururik eztaola Eibarren esatia, ez jaku gustau

zen...horretzek batez be. -Prensiya estranjerua bastante hartzen genduan.

Arratsaldeko bostetan trenian bialtzeskuen. Jentiaquin hori-ezta bape be ezaban irakurtzen-. Kanpoko prentsiya euki genduan denpora askuan, baiña galdu eitten genduan ze...bueltatzen genduzen baiña portia pagau bihar!! Ta ekartzen eskuezenek heurek moztu ebenze... ezin zan halan jarraitu, esan ezkuen ezinlei-

xa hartu eban euskerazko guztixak. Guk eukitzen genduan batian -tema vasco- eta bestian -euskerazkoa-.

### Anekdotaren bat.

"Ba ointxe gertau jaku bat, ointxe hamabost egun dila. Etorri jakun maixu bat, urtietan hamen egon zana ta gero Zamorara destinatu ebena ta... -¡Hola!, he venido a hacerles una visita; no he querido marchar-

Jatetxe - Erretegia

**JOSHE MARI**

OSTATUA

Arrageta, 18 - Tfnoa: 12 08 65  
20600 EIBAR

**MUÑOIA**

ZURE AUTOARENDAKO  
ORDEZKO PIEZAK

BIDEBARRIETA 14, 16.  
TFNOA: 11 13 17  
11 62 28

*Larramendi*

ETXERAKO  
ELEKTRATRESNAK

ESTAZIÑO, 6 T Tfnoa: 11 30 11

**LA KUESTA**

OPTIKO-OPTOMETRISTA  
OPTIKA DIPLOMATUA

Calbeton 23  
Tfnoa. 11 10 61

**EIBAR**

*Jeronimo*

Drogeria

Jostailu eta opari-artikuluak

Calbeton, 11 Tfnoa: 11 10 14

# EZKONTZAK

## Betidaniko ilusioa

### ala buruhaustea?



Badirudi badatorrela eguraldi ona eta honekin batera bikoteek be elkartzeko edo ezkontzeko garaia. Nahiz eta kaleko entrebistak guztiz desberdinak eman (batzuk gauza beharrezko bat bezala il dutenak eta beste batzuk ideia horrekin guztiz kontra daudenak) gehienak oraindik elizatik edo auzitegitik pasatzen bukatzen du.

Gaur egungo bikoteek urte batzuk elkarrekin ibili eta gero ezkontzen amaitzen dute, bai ohituraz, bai benetan horretan sinesten dutelako edo baita ez usteko gertakari batengatik presa sartu zaielako. Gai honi buruz hitzegiteko **ezkongai batzuekin berriketan ibili gara.**

#### Konpromesu afektibo eta legala

"Gauza hauek oso aurretik pentsatuta eduki behar dituzu, bai bizitza osoa aldatzen dizun pausu bat ematen duzulako, bai praktikotasunari begira taberna eta elizan tokia hartu behar duzulako. Ezkontzea elkarrekin proiektu bat egitea da, erlazioa iraunkorragoa egitea, konpromesu afektibo eta legal bat hartzea. Gu fededunak gara eta argi daukagu ezkontzeak zer suposatzen duen, baina beste askok familia, eta zergaitik ez, gizarteak behartuta ezkontzen dira, ezkontzarekin batera besteen aurrean oneritzi bat lortu nahi izango balute bezala. Gure ezkontzara 200 lagun eta familiar gonbidatu ditugu. Zoragarri pasatzeko asmoa daukagu; nahiz eta buruhauste demasa izan egun bat besterik ez da, bizitza luzea da, gainera gauean etorriko da geure ordaina."

#### Kantabrian tokirik ez

"Ezkontzari hilabete batzuk aurretik hasten dira dena prestatzen" komentatzen du **Kantabriako jabeak**. "Hemendik urte bukaerainoko larunbat guztiak (Abuztua eta Abendua ez ezik) bete dauzkagu. Larunbata izaten da ezkontzeko egunik arruntena, jai dagoelako eta hurrengo egunean ez dagoelako lanerako inungo ardurarik. Horregatik, hainbeste jende dagoenez geroz eta gehiago ezkontzen da jendea arratsaldetan. Normalean 100-175 gonbidatu inguru elkartzen dira. Prezioak ezkongaiak eskatutako menuaren arabera dijoaz, baina esan dezaket gutxi gorabe-

hera 4.700-5.500 pta balio duela pertsonako."

#### Diru Kontua

Bazkaria ordaintzeko jendeak gehienetan dirua ematen du (gutxi gorabehera 15.000 pta bikoteko) eta hau problema latza izan daiteke gehienbat lanik egiten ez dutenentzat edo familia oso bantentzat. Adibidez, ikaslea den eta **25 urte dituen gazte batek** bere kasua kontatu zigun. "Aurten hiru ezkontza izan behar ditut eta ez dakit nondik aterako dudan hainbeste diru, ez bait dut lanik egiten. Gaur egun 5.000 pta-tik gora ordaindu behar duzu kanonak horrela markatzen dutelako. Beraz problema latza izaten da diruarena, gainera ezin diot hiruretatik inori uko egin, bi oso lagunak bait dira eta bestea familiakoa. Ez du merezi hainbeste ordaintzea eta horrelako gehiegikeriak egitea, gai honetan tontakeri handia nabaritzen da. Hala ere, zihur mozkor handia harrapatuko dudala, dantza pilo bat eta oso ondo pasatuko dudala, gainera aspaldiko lagunekin elkartzeko aukera ezin hobea izaten da."

#### Kontrako eritziak

Baina mundu guztia ez dago ezkontzearen alde. Hona hemen **elkarrekin bizi diren bikote baten eritzia**: "Familia bat sortzeko ez da derrigorrezkoa ezkontzea. Guretzat askoz ere merito gehiago dauka maitasunez soilik mantentzen den erlazio bat, bizitza osorako konpromesu edo firma bat izatea baino. Maitasunak beste dimentsio askoz baliogarri bat hartzen du horrela gure usuez. Gainera gizarteak mantentzen dituen balore anakroniko apurtezin hoiei kontra egiteko medio bat da. Gizarte hau familia nuklearraren inguruan eratuta dagoela argi dago. Beste era batetara funtzionatuko begenu bai maitasunean eta bai besteekiko erlazioetan: gizarte, natura... mundua hobetuko litzateke."

## Eskontza eta boden gainean, zer diozu?




**1. Luis Ramos. 22 urte.** Eskubaloiko jokalaria. Ezkontzak?... ez dut horrelakorik probatu eta ezin dizut esan. Gaur egungo pentsakera ikusirik pixkat "kursi" iruditzen zait zuriz joatea, elizako protokolo guztiak betetzea,...



**2. M<sup>a</sup> Carmen Gabilondo. 28 urte.** Lanean. Buff... roilo galanta! Ezkontzak dakarren ideian sinesten dut, baina nire ustez jende gehiena besteek zer esango dutenagatik ezkontzen da. Bazkariak eta jaiak larregikoak iruditzen zaizkit.



**3. Antonia Iriondo. 75 urte.** Okina. Normala semeak ezkontzea, ama ez da betiko izango, ezta? Adin batetara ailegatu ezker euren bizitza egitea gustatzen zaie. Ezkontuz familia osatzeko aukera daukate.



**4. Agustín. 64 urte.** Administralaria. Oso ongi iruditzen zait jendea ezkontzea, ezkontu gabe baino hobeto bait daude horrela. Nire familian gehienak ezkontuta daude, hori gauza ona dok eta!



**5. Pedro eta Arantza. 30 urte.** Lanean. Ongi mundu guztiak egiten duen gauza bat da. Arazo larriagoa izaten dute gonbidatuek. Guk bi edo hiru ezkontza jarraian dauzkagu; udarako diru gabe geratu behar dugu.



**6. Enrique Solozabal eta Inaki Sarasketa.** Jubilatua. Gauzarik ederrena da ezkontzea. Guk gainera ondo dakigu zer den hori, illobak eta guzti dauzkagu eta. Hala ere oraingo gazteen martxia pixkat larregikoa da.



**8. Yolanda Diez eta Eneida Larrañaga. 17 eta 18 urte.** Ikasleak. Montajea? guretzat behintzat ez, ambiente ederra egoten da eta jendea inoiz baino dotoreago dijoa. Gure asmoa behintzat hori da, ezkontzea eta seme-alabak izatea.



**9. Alberto. 27 urte.** Langilea. Ezkontzea edo elkarrekin bizitzearen erabakia bakoitzaren esku dago, ez da derrigorrezkoa udaletxetik edo elizatik pasatzea. Norbera libre da nahi duena egiteko.

BULEGO MATERIALA ETA ALTZARIAK

**ETESA**

KOMERTZIALA

Bidebarrieta, 66. 428 Postakutxa/Tel: 121973 (Eibar)

## EKAINAKO AGENDA

### KIROLA

**ZIKLISMOA.** (Eibarko Klub Ziklistak antolatutik):  
10an: SAN JUAN SARI NAGUSIA. Estatu Mailakoa. Gazteak.  
**EIBAR BIZIKLETA - ARRATE-IGOERA**  
(C. Deportiboaren laguntzaz)  
13an: Eibar-Getxo/ 14an: Getxo-Itziar/ 15an: Deba-Andoain/  
16an: Andoain-Eibar/ 17an: EIBAR-ARRATEKO IGOERA.  
GUZTIRA: 850 Km./ Egunero: Km. +/-  
**MENDI IBILALDIAK** (C. Deportiboko Mendi Taldea)  
9an: Ilarregi-Berriplano  
30an: Belagoa-Larrau Mendatea

### FUTBOLA

C.D. Urkik antolatutik: I SAN JUAN TORNEOA (ALEBINAK) eta (JUBENILAK) XII TORNEOA. UNBEKO Kirolgunean; 16 eta 23an.  
**PILOTA**  
SAN PEDRO TXAPELKETA: "Hauzokoak" eta Peña Pelotazalek antolatuta.  
AFIZIONATUentzat. ORBEA Frontoian: 29 (Azken-aurrekoak)/ 23an FINALA  
"EIBAR HIRIA" ARRATERAKO II MOTO IGOERA. uztaialak I  
"EIBAR HIRIA" IV BOLO TXAPELKETA (Centro Montañes) Uztaialak I  
**ZINE EROTIKOA- III ZIKLOA**  
Eibar eta Ego-Ibar Zine-Taldeen antolatuta  
12an: "Garganta Profunda"  
13an: "La trampa de Venus"  
14an: "No amaras"  
Emanaldiak: Amañako Kultur Gelan. Gaueko 10etan.  
**AUDIOBISUALEN ASTEA - C.DEPORTIB. ARGAZKI TALDEAK** antolatutik

4an: "ITALIA" Filma. Pedro Gonzalez. Eibar  
5an: Filma (gaia: mendia). Txema Camara. Bilbo  
6an: "NATURA" Filma. J. Carballo. Zumaia  
7an: "EUSKADI A ORIENTE" Filma. Javier de Juanes. Donostia.  
8an: "ONIRIAS". Filma. Guillermo Fernandez. Valencia  
Emanaldiak: KULTURALean, arratsaldeko 8retan.  
**SAN JUANAK**  
8an: TEATROA. Unibertsitatean, 8,30etan./Gaueko 12etan MODA Untzagan  
10an: DEBA-BEHEKO TXISTULARIEN ALARDEA. Eguerdian.  
15an: KONTZERTUAK: Elorriko Korala. Amañako Kultur gelan  
20,30etan "LUZ CASAL". Polikirodegian, gaueko 10etan  
17an: KALE-ANTZERKIA: "PETIT CIRC DE CARRER" Taldea. Untzagan. 19,30ak.  
20an: P. Gonzalezek egindako audiobisualaren aurkezpena  
22an: KONTZERTUAK: San Andres Parrokian: Begarako Orkestra eta SOSTOA Abesbatza/ Untzagan: Gaueko 12etan. TAHURES ZURDOS  
-TEATROA: XARXA TEATRE Taldea: "NOCHE MAGICA" Antzeslana.  
23an: Goizez: SAN JUAN ZORTZIKOA eta Txistularien Kalejira/ ESTELLAKo Dultzaineroak/ Txupinazoa/ KARTEL LEHIAKETA- REN ARI BANATZEA  
Arratsal: ZEZENAK (Peña Taurina)/ SALBEA San Andres Egoitzan/ KALE ANIMAZIOA/BERBENA (ORQUESTA CONTINENTE) / SAN JUAN KANTUA ETA TANBORRADA/ GAUPASA (XALEM ORKESTA)  
24an: SAN JUAN EGUNA: Goizez: Dultzaineroekin Kalejira Zezenplazara/ Enboladoak/ San Juan kontzertua Untzagan (Txistulari eta Musika Banda)/ Arratsal: Zezenak/ HAURREN

TANBORRADA/ SU ARTIFIZIALAK/BERBENA (ORQUESTA NERVION)/GAUPASA: EKAITZ Taldea.  
25an: Dultzaineroekin Zezenplazara/Enboladoak/HAURREN-ZAKO JOLASAK Untzagan. (Goiz eta Arratsalde)  
Arrats.: ERRALDOI-BURUHANDI ETA DULTZAINEROEN KALEGIRA/ZEZENAK/HAURREN-ZAKO JAIALDIA Untzagan/SUAK  
29an: HAURREN-ZAKO JAIALDIA/CAMP BERBENAK Untzaga eta Urkizun/ZINEMA Untzagan.  
30an: PINTURA LEHIAKETA/haurren-zako Jokoak/"ENFERMOS eta CANCER MOON" Taldeak Untzagan/ HAIZEA taldearen KONTZERTUA Urkizun./ZINEA Untzagan.  
Uztaialak I: Goiz.: ZEZENAK/Urkiun./ARTESAUTZA ERAKUSKETA/TRIKITILARI BERTSOLARIAK/HERRI KIROLAK/DANTZA SOLTE TXAPELKETA/TXARANGAK/ JAIEN AMAIERAKO TRAKA  
ARMERIXIA:I NAZIOARTEKO ARMA ERAKUSKETA.  
16tik-23ra. Armagintza Eskolan  
16 eta 17an: "EIBAR" TIRO TXAPELKETA - Aintzinako Armak (Abankarga)  
**GASTEIZen**  
19an: "EIBAR" HIRIA NAZIOARTEKO PLATER TIRAKETA NAGUSIA  
21an: HELIZE TIRAKETA / PRESIDENTE KOPA  
22an: HELIZE TIRAKETA ESPAINIAKO TXAPELKETA  
23an: "EIBAR" HAIZEKO KARABINA TXAPELKETA. Gipuzkoako Ikastetxe guztien artean. Kategoriak (Ume-Kadete eta Jubenilak). Unibertsitate Laboralean.  
24an: MUNDUKO HELIZE TXAPELKETA  
25an: "Aurretik kargatzeko Armeekin" (Abankarga) PLATER TIRAKETA. Aintzinako erara jantzita.

## NORK - ZER

**Koordinatzailea:**  
Fernando Muniozguren.  
**Erredakzio taldea:**  
Ana Aizpurua.  
Mireia Ugarteburu.  
Idoia Irazola.  
Fernando Muniozguren.  
Amaia Muruamendiaraz.  
Oskar Rekalde  
Asier Arrieta  
Arrate Zuloaga  
Aitor Gorostegi  
Jose Luis Gorostegi  
**Argazkilariak:**  
José Valderrey.  
Mireia Ugarteburu.  
**Maketazioa:**  
Jose Valderrey.  
**Komikia:**  
Ander Gisasola  
**Inprimaketa:**  
Gertu.